



Zergak aldizkariaren aurreko zenbakia-
ren editorialean gogorazi zen bezala,
2019an, 30 urte bete ziren Euskadiko Zerga
Koordinaziorako Organoa (EZKO) –aldizkari ho-
nen argitaratzailea– sortu zenetik, Eusko Lege-
biltzarraren maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen
babespean (Zergapideen elkar-egokitasun,
erakidetasun eta lankidetasunari buruzkoa). Ha-
laber, editorial horretan jakinarazten zen 2019ko
uztailaren 19an jardunaldi bat egingo zela Eus-
kal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan,
Donostian, «EZKO: 30 urteko zerga-harmoniza-
zioa Euskadin» izenburupean. Jardunaldian,
errepasoa egin zitzaion EZKOren lanaren iragan,
orain eta etorkizunari. Horretarako, Euskadiko
zerga-eremuko koordinazio-, harmonizazio- eta
lankidetzaz-ageretokian aktore nagusi izan dire-
nek parte hartu zuten.

Zergak aldizkariako erredakzio-batzordeak lan-
kidetzaz-eskaera egin zien jardunaldi horietako
hizlariari, eta dokumentu labur bana bidali dute,
bakoitzak bere hitzaldiari buruzko giltzarriak ai-
patuz. Horri esker, atal berezi bat egin ahal izan
dugu aldizkariaren zenbaki honetan, eta EHUKo
udako ikastaroetako jardunaldian zuen izenburu
bera ipini diogu monografikoari: «EZKO: 30 urteko
zerga-harmonizazioa Euskadin».

Monografikoa da beritasun nagusia Zergak al-
dizkariaren 58. zenbakian, eta «Azterlanak eta
Kolaborazioak» ataleko lau artikuluen ondoren
txertatu da. Honako hauek izan dira partai-

Tal como se recordaba en el editorial del nú-
mero anterior de Zergak, en 2019 se cumpli-
ron 30 años desde que en el marco de la Ley
3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coor-
dinación y Colaboración Fiscal, del Parlamento
Vasco se crease el Órgano de Coordinación Tri-
butaria de Euskadi (OCTE), editor de esta revista.
Asimismo, se informaba en dicho editorial de la
celebración, el 19 de julio de 2019, de una jorna-
da en los Cursos de Verano de la Universidad del
País Vasco, en Donostia-San Sebastián, en la que
bajo el título "OCTE: 30 años de armonización fis-
cal en Euskadi", se había realizado un recorrido
sucesivo por el pasado, el presente y el futuro de
la labor del OCTE, contándose con la participa-
ción de los principales actores en el escenario de
la coordinación, armonización y colaboración
en el ámbito tributario en Euskadi.

Las personas ponentes en esa jornada han res-
pondido a la solicitud de colaboración que se les
ha cursado desde el Consejo de Redacción de
Zergak y cada una de ellas ha enviado un bre-
ve documento con las claves de su intervención,
lo que nos ha permitido completar una sección
especial en este número de la revista, un mono-
gráfico que hemos titulado del mismo modo que
la jornada de los cursos de verano de la UPV en
la que participaron: "OCTE: 30 años de armoni-
zación fiscal en Euskadi".

El monográfico es la principal novedad en la es-
tructura del número 58 de Zergak y se incluye tras
los cuatro artículos de la sección de "Estudios y
Colaboraciones". Han participado en su elabo-

deak: Juan Miguel Bilbao, Bizkaiko Foru Ogasuneko Finantzen ikuskatzailea eta EZKOren presidentea 1995-2009 eta 2013-2017 aldietan («30 años de OCTE: Balance»); Iñigo Balerdi, Gipuzkoako Foru Ogasuneko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuko burua («Principios del sistema de armonización fiscal»); Javier Armentia, Arabako Foru Aldundiko Zerga Araudiaren Zerbitzuko burua («Armonización fiscal y competencia de las instituciones forales»); Ane Etxenautia, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerga Administrazioako zuzendaria («Nuevos retos en la coordinación y armonización fiscal») eta Gemma Martínez Bárbara, Bizkaiko Foru Ogasuneko Zerga Politikako Zerbitzuko burua (jardunaldia- ren azken azterketa egin zuen).

Hitzaldietan ikusi ahal izan da Euskadin daukagun zerga-eremuko koordinazio-, harmonizazio- eta lankidetzaz-ereduak zenbait ahultasun dituela, baina, oro har, monografiko honetan parte hartu duten pertsonak ados daude honetan: EZKOren jarduerak balantze positiboa izan du bere ibilbideko 30 urteetan, eta eragin handia izan du bereziki harmonizatutako zergen foru-sistemak zehazteko.

Gaia aldatuz, zerga-iruzurra borrokatzeko erakunde-lankidetzaren esparruan, 2019. urtearen bigarren erdian aurrerapauso handiak egin dira urte anitzeko baterako bi proiektutan. Aldizkariaren beste zenbaki batzuetan ere aipatu ditugu proiektu horiek, eta funtsezkoak dira prebentzio-estrategien arloan.

Batetik, **tributu- edo zerga-hezkuntzaren** programa dugu, kontzientziazio fiskal handiagoa sustatu nahi du-eta, haurrengandik hasita, hezkuntza-inguruan. «Intereseko dokumentuak» atalean, berriro nabarmentzen da, esteka edo lotura espezifiko baten bidez, zerga-hezkuntzako gunera sartzeko bidea, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean baitago. Programaren informazio eguneratua dauka, eta haren bitartez irits gaitezke, era berean, hiru foru-ogasunetako bakoitzak

ración Juan Miguel Bilbao, Inspector de Finanzas de la Hacienda Foral de Bizkaia y Presidente del OCTE en los periodos 1995-2009 y 2013-2017 («30 años de OCTE: Balance»); Iñigo Balerdi, Jefe del Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento jurídico de la Hacienda Foral de Gipuzkoa («Principios del sistema de armonización fiscal»); Javier Armentia, Jefe del Servicio de Normativa Tributaria de la Diputación Foral de Álava («Armonización fiscal y competencia de las instituciones forales»); Ane Etxenautia, Directora de Administración Tributaria del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco («Nuevos retos en la coordinación y armonización fiscal») y Gemma Martínez Bárbara, Jefa de Servicio de Política Fiscal de la Hacienda Foral de Bizkaia que realizó el balance final de la jornada.

Sin perjuicio de que las ponencias hayan podido poner de manifiesto algunas debilidades del modelo de coordinación, armonización y colaboración del que nos hemos dotado en el ámbito tributario en Euskadi, en líneas generales hay una gran coincidencia de las personas que han colaborado en este monográfico sobre el balance positivo de la actividad del OCTE a lo largo de sus 30 años de trayectoria y sobre su destacada influencia para perfilar unos sistemas tributarios forales esencialmente armonizados.

En otro orden de cosas, en el ámbito de la colaboración institucional en la lucha contra el fraude fiscal, durante la segunda mitad de 2019 han evolucionado de forma muy activa los dos proyectos plurianuales conjuntos que hemos venido destacando en anteriores números de la revista y que son clave en el área de las estrategias preventivas.

Por una parte, el programa de **educación tributaria**, que trata de promover una mayor concienciación fiscal desde una edad temprana, en el entorno educativo. Volvemos a destacar, en la sección de «Documentos de interés», el acceso, mediante enlace específico, al área de educación tributaria en la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, en el que se contiene información actualizada del programa y a través del cual se direcciona a su vez a los enlaces que dan acceso a las unidades

ekonomiari eta zerga-sistemari buruz prestatu duen unitate didaktikoetara. Unitate didaktiko horietan oinarritzen da ikastetxeetan ematen den programa.

Gogorarazi nahi dugu honelaxe erabaki zirela zerga-hezkuntzaren proiektua ezartzeko baterako izaera eta baldintzak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek hitzarmena sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzen duen hezkuntza-programa garatzeko. Hitzarmena 2017ko uztailaren 7an sinatu zen, eta jarraian luzatu zen beste hiru ikasturtetarako, 2021era arte, proiektuari egonkortasuna emateko. Erakundearteko akordioaren barruan, laguntza-zerbitzuetarako kontratu bat formalizatu zen 2018ko bigarren seihilekoan, programa ezartzeko. Arrakasta handia izan zuen 2018/2019 ikasturteko programak: 165 ikastetxetan eman zen, eta 5.379 ikaslek hartu zuten parte («Intereseko dokumentuak» atalean, 2018/2019 ikasturteko emaitzen azken memoriaren laburpen bat erantsi da).

2019ko bigarren seihilekoan, nabarmendu egin da 2019/2020 ikasturterako ikastetxe berriak erakartzeko kanpainan. Maiatzean hasi zen, eta kontratuaren adjudikazioa duen enpresarekin batera definitu ziren ikasturte berrian programa hasteko giltzariak. Era berean, arrakasta handia izan dute estaldura-indizeak hobetu eta proiektua sendotzearen egin diren programa hedatzeko jarduerak, kontuan hartzen badugu, behin-behineko erregistroen arabera, zenbat ikastetxek bete duen izena emateko formularioa: 233 ikastetxek eman zuten izena 2019aren erdialdean. Kopuru hori behin-behinekoa da eta, beraz, handitu egin daiteke. Hala ere, nabarmen gaitzitzen du, dagoeneko, 2019/2020 ikasturterako ezarri zen 201 ikastetxeren kopurua.

Bada, beste gai hau ere aipatu behar dugu orain, hezkuntza-eremuarekin zerikusia duelako: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak

didácticas sobre economía y fiscalidad de cada una de las tres Haciendas Forales. En dichas unidades didácticas se fundamenta el programa impartido en los centros escolares.

Recordamos que el carácter conjunto y las condiciones para la implantación del proyecto de educación tributaria se acordaron mediante el "Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi". El convenio se suscribió el 7 de julio de 2017 y fue prorrogado posteriormente para su continuidad durante otros tres cursos escolares, hasta 2021 con el fin de dar estabilidad al proyecto. En el marco de dicho convenio interinstitucional, en el segundo semestre de 2018 se formalizó un contrato de servicios de apoyo para la implantación del programa. El programa correspondiente al curso 2018/2019 se cerró con éxito, impartándose en 165 centros escolares a un alumnado de 5.379 personas (en la sección de "Documentos de interés" se anexa un extracto de la Memoria Final de resultados del curso 2018/2019").

Durante el segundo semestre de 2019 se ha insistido en la campaña de captación de centros escolares para el curso 2019/2020, que se puso en marcha en el mes de mayo, y se han definido junto con la empresa adjudicataria del contrato las claves para el inicio del programa del nuevo curso. Las actuaciones de difusión del programa con el objetivo de mejorar los índices de cobertura y consolidar el proyecto también han sido exitosas a tenor de los registros provisionales de centros escolares que han cumplimentado el formulario de inscripción, que a mediados de 2019 ascendían a 233. Esta cifra, aún provisional y susceptible por tanto de incrementarse, rebasa ampliamente el objetivo inicial de 201 centros fijados para el curso 2019/2020.

Resulta oportuno traer a colación en este punto, porque también están relacionadas con el ámbito educativo, sendas iniciativas divulgativas del

Ekonomia Ituna gizarteratzeko ekimen bi sustatu ditu 2019ko azken hilabeteetan: i) batetik, Ekonomia Itunari buruzko unibertsitate-lehiaketa bat egin da, «Quizz 41» izenekoa, Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko 400 ikasle inguruk hartu duela parte, eta, ii) bestetik, KONEKO V izeneko bideo-jokoa garatu da, umeentzat, Ekonomia Itunera ohitu daitezten eta, jokoa bitartez, lehenengo ideia gara dezaten gure finantza- eta zerga-harremanen eredu bereziak duen funtzionamenduari buruz.

Prebentzioaren alorreko bigarren proiektuakoa, baterakoa eta urte anitzekoa hura ere, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak iruzurraren aurkako batzordean adostua, jardura ekonomikoak egiten dituzten pertsonen edo entitateen zergak kontrolatzeko sistema integralak ezartzean datza.

Aldizkariaren beste editorial batzuetan aipatu den bezala, **TicketBAI proiektuaz** ari gara, xedezat baitu jardura ekonomikoak egiten dituzten pertsona eta erakunde guztiek euren salmenta-eragiketa guztiak aitortzen dituztela bermatzea. Inguruko herrialdeek esparru horretan duten esperientzia oinarritzen da, eta bat egiten du Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) 2013. eta 2017. urteetako txostenetako gomendioekin («Salmenten eza-batze elektronikoa: zerga-sarrerentzako mehatxua» eta «Ihes eta iruzur fiskalari aurre egiteko bitarteko teknologikoak», hurrenez hurren), zeinei gehitu behar diegu 2019ko martxoaren 28an argitaratutako txosten berriena, «Implementing Online Cash Registers: Benefits, Considerations and Guidance» izenburua duena.

Urte anitzeko proiektu honen esparruan aurreikusi da betebeharrak juridiko eta teknikoak ezartzea zerga-administrazioak jardura ekonomikoaren diru-sarrerak kontrolatzea ahalbidetzeko, eta, bereziki, diru-sarrerak ezkutatzeko joera duten sektoretako jarduerak kontrolatu ahal izateko (ondasunak edo zerbitzuak azken kontsumitzaileei entregatzen dizkiete, gehienetan esku-dirutan ordainduta).

Concierto Económico promovidas por el Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco en los últimos meses de 2019: i) un concurso universitario sobre el Concierto Económico, "Quizz 41", en el que participaron cerca de 400 estudiantes de la Universidad del País Vasco, Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea y ii) el desarrollo de un videojuego, KONEKO V, dirigido al público infantil, con la pretensión de que se familiarice con el Concierto Económico y, a través del juego, tenga una primera idea sobre cómo funciona nuestro singular modelo de relaciones financiero-tributarias.

El segundo proyecto clave incardinado entre las actuaciones de orden preventivo, también de carácter conjunto y plurianual, acordado por las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude es el dirigido a la implantación de sistemas de control integral de la tributación de las personas o entidades que desarrollan actividades económicas.

Como ya se ha señalado en anteriores editoriales de la revista, se trata del **proyecto denominado "TicketBAI"** que, inspirado en la experiencia de los países de nuestro entorno en este ámbito y de acuerdo con las recomendaciones contenidas en los informes de la OCDE de los años 2013 y 2017 de títulos "Supresión electrónica de ventas: una amenaza para los ingresos fiscales" y "Herramientas tecnológicas para abordar la evasión fiscal y el fraude fiscal", respectivamente, (a los cuales debemos añadir el informe más reciente publicado con fecha 28 de marzo de 2019, de título "Implementing Online Cash Registers: Benefits, Considerations and Guidance") tiene por objeto asegurar la declaración de todas las operaciones de venta realizadas por las personas y entidades que desarrollan actividades económicas.

En el marco de este proyecto plurianual se ha previsto el establecimiento de una serie de obligaciones legales y técnicas que permitan a la Administración tributaria el control de los ingresos de todas las actividades económicas y, en particular, de aquellas actividades enmarcadas en sectores proclives a la ocultación de los mismos en la medida que realizan entregas de bienes o

2019ko bigarren seihilekoan, proiektua garatzeko osatu zen erakundearteko lantaldeak (foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatua), batez ere, beharrezko arau-moldaketak garatu ditu kontrol-sistema hau ezartzeko, eta azken akaberak egin ditu proba pilotua ezartzeko, fakturazioko informatika-prozesuetan inplementatutako zehaztapenak praktikan nola erantzuten duten egiaztatzeko. Softwarea garatzen duten 131 enpresak hartu dute parte, apirila eta azaroa bitartean, proba pilotuan; horrela, beharrezkoak diren enkriptatze-errekerimenduak dituzten fitxategi informatikoak sortu eta Ogasunera helarazi dituzte, betiere ezarrita dauden segurtasun-baldintzak betez. Proba pilotuaren esperientziari esker, TicketBAI sistemaren zehaztapen tekniko eta funtzionalen definizioa amaitu ahal izan da (aldizkariaren intereseko dokumentuen artean sartu dugu), eta laster islatuko dira alor hori garatzen duen foru-arautegian.

«Zergak gaur egun» atalean, zehatz-mehatz adierazita dago foru-erakundeek, aldizkari honen erreferentzia-aldian (uztaila-abendua), zer jarduerak izan duten zerga alorreko araugintzan. Halaber, foru-aldundietako zerga-araudiaren edo zerga-politikaren zerbitzuek gaurkotatzen edo esanahi bereziagatik nabarmendu dituzten xedapen batzuen iruzkina ere egin da. Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lan-ekidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Zerga Koordinaziorako Organoak emana zuen jada xedapen horietako batzuei buruzko txostena, artean proiektu-fasean zeudela. Hainbat aldaketa egin dira zerga-sistema foraletan, hala arauetan nola erregelamenduetan, eta, horien artean, bereizketa hau egin dezakegu: batetik, foru-erakundeek araugintza-eskumenaren mende daudenak, eta, bestetik, Ekonomia Itunaren arabera Estatuaren arauen arabera zuzendu beharreko zergak. Hain zuzen ere, 2019ko biga-

prestaciones de servicios a las y los consumidores finales, cobrados en gran medida en efectivo.

Durante el segundo semestre de 2019, la actividad del grupo de trabajo interinstitucional que se constituyó para el desarrollo del proyecto, con participación de las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco, se ha desarrollado especialmente en el ámbito de las adaptaciones normativas necesarias para la implantación de este sistema de control y en la ultimación de la prueba piloto realizada para verificar el comportamiento en la práctica de las especificaciones implementadas en los procesos informáticos de facturación. Han sido 131 las empresas desarrolladoras de software que entre abril y noviembre han participado en la prueba piloto en la que han generado archivos informáticos con los requerimientos de encriptación necesarios y los han transmitido a Hacienda cumpliendo con los requisitos de seguridad establecidos. La experiencia del piloto ha servido para ultimar la definición de las especificaciones técnicas y funcionales del sistema TicketBAI –que incorporamos entre los documentos de interés de la revista– y que deberán tener su reflejo próximamente en el desarrollo normativo foral regulador de esta materia.

La actividad normativa de las instituciones forales en materia tributaria durante el periodo de referencia de esta revista (julio - diciembre) se relaciona de forma exhaustiva en la sección de “Actualidad Fiscal”, junto con el comentario de una selección de disposiciones que los Servicios de Normativa Tributaria o de Política Fiscal de las Diputaciones Forales han destacado por su actualidad o por su especial significación. De acuerdo con lo establecido en el artículo 11 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, algunas de estas disposiciones ya habían sido informadas previamente, en fase de proyecto, por el Órgano de Coordinación Tributaria. De entre los diversos cambios introducidos en los sistemas tributarios forales, tanto de rango normativo como reglamentario, podemos diferenciar entre aquellos sobre los que se dispone de competencia normativa foral y por tanto discrecionalidad para su regulación, y aquellos otros que afectan

rrren seihilekoan, foru-erakundeen arau-jarduera erregelamenduen alorrekoa izan da batez ere, eta aipatu diren bi kategorietako lehenengoari eragin dio gehien, hau da, foru-erakundeen araugintza-eskumenaren mendekoei. Urriago izan dira foru-arauaren mailako xedapenen bitartez onestea behar izan duten ekimenak, eta urriak izan dira, baita ere, Estatuko araudian sartutako aldaketan edo Erkidego mailako aginduen ondorioz foru-arauaren bat aldatzeko beharrak eragindakoak.

Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzako langileek prestatutako Europar Batasuneko zerga-aldibeste kronikak 2019ko bigarren seihilekoan gertatutako zerga-gairik garrantzitsuenen berri ematen du, bederatzi atal handitan egituratuta, eduki honekin:

1. Sarrera

- 1.1. Finlandiaren lehendakaritza: 2019ko uztailaren 1a – abenduaren 31

2. Sozietateen fiskaltatea

- 2.1. Sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komuna
- 2.2. Jokabide-kodea izeneko taldea sozietateen gaineko zergari buruz
- 2.3. Ekonomia digitalaren fiskaltatea

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

- 3.1. BEZaren behin betiko sistema
- 3.2. BEZ-moten aldaketa.
- 3.3. Merkataritza elektronikoa BEZa aplikatzeko paketea
- 3.4. BEZa egiteko beharrezko ordainketen buruzko informazioaren derrigorrezko transmisioa eta informazio-trukea
- 3.5. Enpresa txikientzako BEZaren arauak sinplifikatzea

4. Zerga bereziak

- 4.1. Zerga berezien erregimen orokorra
- 4.2. Alkoholaren eta edari alkoholadunen gaineko zerga berezien egiturak
- 4.3. Zerga bereziak EBren defentsarako ahaleginari dagokionez
- 4.4. Energiaren fiskaltatea

a tributos que, según regula el Concierto Económico, han de regirse por las mismas normas establecidas por el Estado. En concreto, durante el segundo semestre de 2019 la actividad normativa foral ha sido preferentemente de orden reglamentario y enmarcada en la primera de las dos categorías mencionadas –la de competencia normativa foral– siendo más escasas las iniciativas que han requerido su aprobación mediante disposiciones con rango de norma foral y también las que vienen motivadas por la necesaria adaptación de la normativa foral a cambios incorporados en la normativa del Estado o a prescripciones de ámbito comunitario.

La crónica de la actualidad fiscal en la Unión Europea que elabora el personal de la Delegación de Euskadi en Bruselas da cuenta de lo más significativo en materia de fiscalidad acontecido durante el segundo semestre de 2019, estructurándose en nueve grandes apartados con el siguiente contenido:

1. Introducción

- 1.1. Presidencia de Finlandia: 1 julio – 31 diciembre 2019

2. Fiskalidad de las sociedades

- 2.1. Una base imponible común del impuesto sobre sociedades
- 2.2. Grupo Código de Conducta sobre la fiscalidad de las empresas
- 2.3. Fiskalidad de la economía digital

3. Impuesto sobre el Valor Añadido

- 3.1. Sistema definitivo del IVA
- 3.2. Reforma de los tipos de IVA
- 3.3. Paquete de aplicación del IVA sobre el comercio electrónico
- 3.4. Transmisión obligatoria e intercambio de información sobre pagos pertinentes a efectos del IVA
- 3.5. Simplificación de las normas del IVA para las pequeñas empresas

4. Impuestos Especiales

- 4.1. Régimen general de los impuestos especiales
- 4.2. Estructuras de los impuestos especiales sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas
- 4.3. Impuestos especiales en lo que respecta al esfuerzo de defensa de la UE
- 4.4. Fiskalidad de la energía

5. Finantza-transakzioen gaineko zerga
6. Administrazio-lankidetzak
 - 6.1. Zerga-arloko jurisdikzio ez-kooperatiboek buruzko EBko zerrenda
 - 6.2. Zerga-auziak ebazteko mekanismoei buruzko Zuzentaraua
7. Arau-hausteetarako prozedurak
 - 7.1. Sarrera
 - 7.2. Epatze-gutunak
 - 7.3. Irizpen arrazoituak
 - 7.4. Artxibatutako gaiak
 - 7.5. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igortzea
8. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak
9. Txostenak eta argitalpenak
 - 9.1. BEZaren arrakala 2017an
 - 9.2. Beste txosten eta argitalpen batzuk

«Azterlanak eta Kolaborazioak» atalean, lau artikulua ditugu oraingo honetan. 1995etik Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantzak Saileko idazkari nagusi teknikoa den José Rubí Cassinellok ireki du atala, EAEko erakundeek nazioarteko zerga-ordena berrian duten partaidetzari buruzko lan bikain batekin.

Artikuluaren idazleak eskarmentu handia du EAEn ordezkaria izaten ECOFIN Kontseiluko lan-taldeetako Espainiako ordezkaritzan, 2011ko apiriletik aurrera partaidetza hori gaitu zenetik. Horrenbestez, leku pribilegiatua du gaiari heltzeko erabiltzen duen ikuspegi integralerako: atzera begirako batekin hasten du artikulua; ondoren, egungo egoera deskribatzen du, eta, amaitzeko, nazioarteko zerga-sistemaren eremuko etorkizuneko erronkak aipatzen ditu Ekonomia Itunaren ikuspegitik.

Egin duen lankidetzaren laburpen gisa, hona hemen sarrerako kapituluaren aurreratzen duena: *“Lan honen helburua da aipatutako lan-taldeetan parte hartu duten EAEko ogasunetako ordezkariek ia bederatzi urte hauetan metatu duten esperientzia deskribatzea, eta esperientzia horren balorazioa egitea, indargune, ahulezia eta gabezia nagusiak identifikatuz, ikuspegi batiatik: EAEko administrazioek partaidetza horren erronka onartzeko izan duten jarreraren ikuspegi-*

5. Impuesto sobre las Transacciones Financieras
6. Cooperación Administrativa
 - 6.1. Lista de la UE sobre jurisdicciones no cooperativas en materia fiscal
 - 6.2. Directiva relativa a los mecanismos de resolución de litigios fiscales
7. Procedimientos de Infracción
 - 7.1. Introducción
 - 7.2. Cartas de emplazamiento
 - 7.3. Dictámenes motivados
 - 7.4. Asuntos archivados
 - 7.5. Remisiones al Tribunal de Justicia de la UE
8. Sentencias del Tribunal de Justicia de la UE
9. Informes y Publicaciones
 - 9.1. Brecha del IVA en 2017
 - 9.2. Otros informes y publicaciones

La Sección de “Estudios y Colaboraciones” se compone en esta ocasión de cuatro artículos. Abre la sección un excelente trabajo de José Rubí Cassinello, Secretario General Técnico del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia desde 1995, sobre la participación de las Instituciones Vascas en el nuevo orden tributario internacional.

El autor del artículo acumula una larga experiencia como representante del País Vasco en la delegación española en los grupos de trabajo del ECOFIN, desde que se habilitó dicha participación a partir de abril de 2011. Se encuentra por tanto en una posición privilegiada para el enfoque integral con que aborda la cuestión, iniciando su relato con una visión retrospectiva, que precede a la descripción del estado actual de la situación y que culmina con los retos de futuro desde el punto de vista del Concierto Económico en el ámbito de la fiscalidad internacional.

Sirva como reseña resumen de su colaboración el comentario del capítulo introductorio en el que anticipa que el *“trabajo tiene como objeto hacer una descripción de la experiencia acumulada en estos casi nueve años en los que los representantes de las haciendas vascas han participado en los señalados grupos de trabajo así como ofrecer una valoración de la misma, identificando sus principales fortalezas y sus puntos débiles y carencias, tanto desde el punto de vista de la actitud*

tik eta jarrera hori praktikan gauzatzeko moduaren ikuspegitik. Horretarako, lanaren lehenengo zatian, sarrera gisa, nazioarteko foro fiskaletan EAEko ordezkariak parte hartzea justifikatzen duten arrazoi praktikoak eta oinarri juridikoak aztertuko dira. Bigarren zatian, atzera begirako bat egingo da, 1986. urtean Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan sartu zenetik eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren akordioa 2010ean aplikatu zen arte foru-administrazioek aurkitu dituzten arazo nagusiak identifikatuz. Hirugarren zatian, bederatzi urteko esperientzia horretan EAEko ordezkariak izan duten partaidetza deskribatuko dugu, eta balantzea egin. Amaitzeko, azken zatian, nazioarteko ordena fiskal berria definitu eta aplikatzean foru-administrazio fiskalek aurkitu dituzten erroka nagusiak identifikatuko ditugu. Era berean, gure finantzaketa-sistema berezia arrakasta-bermeekin ordena berri horretan naturaltasunez integratu ahal izan dadin gure ustez zein neurri hartu ahal izango den eta hartu beharko den aipatuko dugu; horrela, Ekonomia Itunak 140 urte baino gehiagoko historian erakutsi duen egokitze gaitasunaren beste adierazgarri bat izango da honako hau".

Jakinarazi beharreko mugaz gaindiko mekanismoei lotuta fiskalitatearen arloan informazio-truke automatikoa egin beharrari buruzko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko (EB) 2018/822 Zuzentaraua (Administrazio-lankidetzari buruzko 6. zuzentaraua) da Europar Batasunak zerga-gar-dentasunaren eremuan hartu duen azken ekimenetako bat. Zuzentaru horren helburuak dira (i) estatu kideetako zerga-agintaritzek informazio osoa eskuratu dezatela "agresiboak izan daitezkeen zerga-mekanismoak" buruz eta (ii) informazio hori aipatutako estatuen artean trukatu ahal izan dadila.

Zergak aldizkariko zenbaki honetako bigarren artikulua bitartez, Javier Armentia Basterra Arabako Foru Aldundiko Zerga Araudiaren Zerbitzuko buruak, aipatutako zuzentaru aztertzen du,

con la que las administraciones vascas han asumido el reto de esa participación como desde el de la forma en que la misma se ha articulado en la práctica. Para ello, la primera parte del trabajo, a modo de introducción, examinará las razones prácticas y fundamentos jurídicos que justifican la participación vasca en los foros fiscales internacionales. La segunda parte realizará una mirada retrospectiva identificando los principales problemas a los que las administraciones forales han debido enfrentarse desde la incorporación de España a la Comunidad Económica Europea en 1986 hasta la efectiva aplicación del acuerdo de la Comisión Mixta de Concierto Económico de 2010. En la tercera parte, abordaremos la descripción de la participación vasca en los nueve años de experiencia acumulada y el balance de la misma. Por fin, en la última parte, identificaremos los principales retos a los que se enfrentan las administraciones fiscales forales en la definición y aplicación del nuevo orden fiscal internacional, así como las medidas que entendemos pueden y deben ser adoptadas con vistas a que nuestro peculiar sistema de financiación se enfrente con garantías de éxito al reto de integrarse con naturalidad en el mismo, en una muestra más de la capacidad de adaptación que ha demostrado el Concierto Económico a lo largo de sus más de 140 años de historia".

La Directiva (UE) 2018/822 del Consejo, de 25 de mayo de 2018, referida al intercambio automático y obligatorio de información en el ámbito de la fiscalidad en relación con los mecanismos transfronterizos sujetos a comunicación de información, conocida como DAC 6, constituye una de las últimas iniciativas de la Unión Europea en el ámbito de la transparencia fiscal y tiene como objetivo (i) que las autoridades tributarias de los estados miembros obtengan información completa sobre los denominados "mecanismos fiscales potencialmente agresivos" y (ii) que esta información pueda ser objeto de intercambio entre los referidos estados.

A través del segundo artículo de este número de Zergak, su autor, Javier Armentia Basterra, Jefe del Servicio de Normativa Tributaria de la Diputación Foral de Álava, analiza esta Directiva desde

ikuspegi bereziki praktiko batetik, irakurleak erraz uler ditzan arrazoiak eta ondorioak. Artikuluan zehar, Administrazio-lankidetzari buruzko 6. zuzentarauak erantzun nahi dituen funtsezko galderak planteatzen ditu eta, jarraian, Zuzentarauak gai bakoitzean ematen duen erantzuna azaltzen du: Zer proposatzen du Zuzentarauak zerga-plangintza agresiboa eragozteko? Nork eman behar du agresiboak izan daitezkeen zerga-mekanismoei buruzko informazioa? Zeren berri eman behar du? Zein mekanismoren bidez eta zein edukirekin? Noiz eman behar da informazioa?

Artikulua amaitzeko, aipatzen du lurralde historikoetako zerga-sisteman txertatu behar dela Zuzentaruak, eta 2019aren amaiera baino lehen egin behar dela transposizioa, 2020ko uztailaren 1ean indarrean sartzeko.

Zergak aldizkariko zenbaki honetako hirugarren artikulua izenburua "Aproximación al análisis de los tributos y beneficios fiscales desde una perspectiva de género" da, eta egilea Paloma de Villota, Ekonomia Aplikatuak irakasle titularra Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Artikulua bat dator aldizkariko erredakzio-batzordearen konpromisoarekin (2018ko lehenengo zenbakian iragarri zen konpromiso hori): lehenetsuna emango zaio zerga-politiken diseinu eta ebaluazioan genero-ikuspegia duten artikuluei eta lankidetzaren hedapenari, eta serie luze bat hasiko da genero-ikuspegia eta berdintasun-politikei arreta berezia eskaintzen dieten zerga-aldurreko lanekin.

Egilea aditua da ekonomia genero-ikuspegitik aztertzen, eta ibilbide zabal eta aitortua du gai honetan. Artikuluaren hasieran, agerian jartzen du harreman bat dagoela baliabide ekonomiko publikoen eta bizitza-zikloan zehar pertsonen zaintza eskubidea kontuan hartzen duen ongizatearen eredu sozial baten garapenaren artean, "lagunkoia" dena genero-ikuspegitik.

Bada, gaur egungo lehenetsun sozialetatik hurbilago dagoen eredu horretara igarotzea erraz

una perspectiva eminentemente práctica que permitirá al lector una fácil comprensión de su motivación y sus consecuencias. A lo largo del trabajo va planteando las preguntas clave a las que trata de responder la DAC 6 y sucesivamente refiere las respuestas que la Directiva da a cada cuestión: ¿Qué se propone la Directiva para atajar la planificación fiscal agresiva? ¿Quién debe facilitar la información sobre los mecanismos fiscales potencialmente agresivos? ¿Sobre qué debe informar? ¿Mediante qué mecanismo y con qué contenido? ¿Cuándo hay que informar?

El artículo finaliza con una referencia a la incorporación de la Directiva al sistema tributario de los Territorios Históricos, tomando en consideración que la trasposición debe realizarse antes del final de 2019 y su entrada en vigor se ha fijado el 1 de julio de 2020.

El tercer artículo de este número de Zergak, titulado "Aproximación al análisis de los tributos y beneficios fiscales desde una perspectiva de género" y autoría de Paloma de Villota, Profesora Titular de Economía Aplicada en la Universidad Complutense de Madrid, está alineado con el compromiso del Consejo de Redacción de la revista que ya anunciara en el primer número de 2018 en el sentido de priorizar la divulgación de artículos y colaboraciones que incorporen la perspectiva de género en el diseño y la evaluación de las políticas tributarias e iniciar una serie larga de trabajos de ámbito tributario con una especial atención a la perspectiva de género y las políticas de igualdad.

La autora, especialista en el ámbito del análisis de la economía desde la perspectiva de género y con una amplia y reconocida trayectoria en esta materia, comienza su artículo poniendo de manifiesto la interrelación existente entre recursos económicos públicos y el desarrollo de un modelo social de Bienestar en el que se incluya el derecho del cuidado de las personas a lo largo del ciclo vital, haciéndolo por tanto más "amigable" desde la perspectiva de género.

Para facilitar la transición hacia ese modelo que considera más acorde con las preferencias so-

teko, egilearen ustez ezinbestekoa da eredu hori ezartzeak beharko lukeen ahalegin ekonomikoa neurtzeko lan bat egitea aurretiaz, eta zerga-presioaren indizea nabarmentzen du azterketarako tresna egoki gisa, bai denboraren ikuspegitik bai konparazio-ikuspegitik. Azterketarako tresna horren laguntza metodologikoarekin eta ikerketa-azterlan batzuetarako erreferentzia eginez, egileak dio harreman bat dagoela zerga-bilketaren (BPGd, barne-produktu gordinari dagokionez) eta ongizatearen eredu sozial ezberdinen artean, eta zergek eta transferentzia sozialek birbanaketa-papera dutela berdintasun ekonomiko handiagoa lortzeko helburuan.

Lanaren bigarren erdian, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) aztertzen du, eta azterlan batzuetako emaitzak mahaigaineratzen ditu horretarako: horietan, nabarmendu egiten da progresibitatea handitzeak (2008an hasi zen atzeralditik eratorritako diru-sarrera publikoen krisiei erantzuteko zergak izan zuen tarifa-tasen igoerak eraginda) nabarmen eragiten duela generoen arteko desoreka. Desoreka hori gizonezkoen kalterako izaten da, emakumeek baino lan-errenta handiagoak jasotzen dituztelako lan-merkatuan, bai balio absolutuetan, bai balio proportzionaletan. Era berean, azaleko azterketa enpiriko baten bitartez, egiaztatu egiten du PFE-Zaren murrizketa eta kenkari fiskal gehienek, bai lurralde erkidean bai foru-lurraldean, generoen arteko desoreka ukaezina dutela, gizonezkoen aldekoagoa, kasu honetan. Beraz, idazlearen ustez, zalantzakoa da zergaren neutraltasuna, eta aukera ematen du ikusteko desoreka androzentriko argia izan zuela sortu zenean: *“ez du ikusten egoera sozioekonomiko ezberdinetan bizi direlako gizonezkoengan eta emakumezkoengan duen eragina ezberdina dela”*.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (HLBGZ) arautzeko parametroak nabarmen aldatu ziren Konstituzio Auzitegiak 2017ko lehenengo hilabeteetan emandako ondoz ondoko epaiekin; izan ere, epai horien bitartez deklaratu zen zerga arautzen duen araudiko zenbait artikuluko konstituzioaren aurkakoak eta deusezak zirela, baina ez modu erradikal eta absolutuan, baizik eta partzialki, soilik lurren balio-gehikuntzarik ga-

ciales actuales, ve indispensable un trabajo previo de medición del esfuerzo económico que requiere su implantación, destacando el índice de presión fiscal como la herramienta de análisis adecuada tanto desde una perspectiva temporal como comparativa. Con el apoyo metodológico de esta herramienta de análisis y referencias a diversos estudios de investigación, concluye la existencia de una correlación entre la recaudación impositiva (con respecto al Producto Interior Bruto, PIB), y los diferentes modelos sociales de Bienestar, así como el papel redistributivo de los tributos y de las transferencias sociales en la consecución de una mayor igualdad económica.

Centra la segunda parte de su trabajo en el análisis del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) y trae a colación los resultados obtenidos en estudios en los que se resalta cómo el aumento de la progresividad, generado por la subida de los tipos de tarifa del tributo en reacción a la crisis de ingresos públicos derivada de la recesión iniciada en 2008, muestra un irrefutable sesgo de género, desfavorable para los varones, debido a la percepción de rentas laborales superiores a las de las mujeres en el mercado de trabajo, tanto en valores absolutos como proporcionales. Constata igualmente, mediante la realización de un somero análisis empírico, que la mayoría de las reducciones y deducciones fiscales del IRPF, tanto en el ámbito de territorio común como en territorio foral, encierran un indiscutible sesgo de género que favorece más a los varones. Lo que en su opinión pone en entredicho la neutralidad del tributo y permite descubrir un claro sesgo androcéntrico en su elaboración, *“ciego al diferente impacto ocasionado en los varones y en las mujeres al vivir en situaciones socioeconómicas disímiles”*.

Los parámetros regulatorios del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana (IIVTNU) se vieron alterados de forma significativa con las sucesivas sentencias del Tribunal Constitucional dictadas en los primeros meses de 2017 declarando la inconstitucionalidad y nulidad de varios artículos de la normativa reguladora del Impuesto, si bien, no de una forma radical y absoluta, sino parcial-

beko egoerak zergapean jartzen zituzten neurrian.

Jurisprudentzia hori eta, bereziki, Zergari buruzko Arabako Lurralde Historikoaren Foru Aravari buruzko Konstituzio Auzitegiaren 2017ko martxoaren 1eko Epaia, behar bezala aztertu zen aldizkari honetan aurretik argitaratutako lankidetzaren batean¹. Hala ere, aipatutako erabakiaren ondoren, hainbat epai osagarri eman dira gai berari buruz, eta berpiztu egin da zergaren gaineko doktrina-etzabaida polemikoa. Testu-guru horretan, *Zergak* aldizkariaren zenbaki honen laugarren lankidetzak gai bera azpimarratzen du, egoera eguneratuz, 2017ko martxoaren 1eko epaiaren ondorengo jurisprudentzia berria sartuz.

“Situación actual del Impuesto municipal sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana en el Territorio Histórico de Álava” izeneko lana Ricardo Solaun Gasteizko Udaleko abokatuak sinatu du. Lehenik eta behin, erabaki judizialen ikuspegitik, 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bitartez Arabako Lurralde Historikoan zerga arautzeko erregulazioan egindako arau-egokitzapenen aurretiazko azterketa egin du, eta, ondoren, bere lanaren hainbat atal eman ditu zenbait alderdi garrantzitsu sakontzeko, zerga arautzen duen agertoki berriaren aplikazio eraginkorrari buruzko zalantzak argitzeko: i) zergaren zerga-oinarriaren kalkulometodo alternatiboak ez aplikatzea, ii) zergapekoari dagokio lurzuaren balio-gutxitzearen gaineko frogaren karga, iii) Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 1eko 37/2017 Epaia irismena eta araubide iragankorraren aplikazioa, iv) likidazioaren aurkako errekurtsoa dela-eta zentsuaren kudeaketa-egintza zeharkako aurkaratzearen desgokitasuna eta v) balore-txostenen atzeraeraginik eza plusbalioaren gaineko zergaren sortzapen-datetan, zerga onetsi aurretik.

¹ “La plusvalía municipal: antecedentes, situación actual y perspectivas de futuro”, Ester Urruzola Arabako Foru Ogasuneko Zerga Araudiko Zerbitzuko teknikaria. *Zergak* aldizkariaren 53. zenbakian argitaratu zen (2017ko urtarrila).

mente, únicamente en la medida que sometían a tributación situaciones de inexistencia de incrementos de valor de los terrenos.

Dicha jurisprudencia, y en particular la Sentencia del Tribunal Constitucional de 1 de marzo de 2017, referida a la Norma Foral del Impuesto del Territorio Histórico de Álava, ya fue objeto de oportuno análisis en una colaboración publicada anteriormente en esta revista¹. Sin embargo, tras el pronunciamiento referido, han sido numerosas las sentencias complementarias dictadas sobre la misma cuestión y se ha reavivado el polémico debate doctrinal sobre el Impuesto. En este contexto, la cuarta colaboración de este número de *Zergak* reincide sobre el mismo asunto, actualizando su estado de situación mediante la incorporación al análisis de la nueva jurisprudencia posterior a la Sentencia de 1 de marzo de 2017.

Firma el trabajo, titulado “Situación actual del Impuesto municipal sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana en el Territorio Histórico de Álava”, Ricardo Solaun, letrado del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Aborda en primer lugar, desde la óptica de los distintos pronunciamientos judiciales, un análisis preliminar de las adaptaciones normativas en la regulación del Impuesto en el Territorio Histórico de Álava realizada mediante el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 3/2017 y dedica seguidamente sucesivos apartados de su trabajo a profundizar sobre diversos aspectos concretos relevantes para despejar dudas sobre la aplicación efectiva del nuevo escenario regulador del Impuesto: i) la inaplicación de métodos de cálculo alternativos de la base imponible del Impuesto, ii) la carga de la prueba sobre la existencia de decremento de valor del suelo corresponde al obligado tributario, iii) el alcance del fallo de la STC 37/2017 de 1 de marzo y la aplicación del régimen transitorio, iv) la improcedencia de la impugnación indirecta del acto de gestión censal con ocasión del recurso contra la liquidación y v) la irretroactividad de las ponencias de valores

¹ “La plusvalía municipal: antecedentes, situación actual y perspectivas de futuro”, Ester Urruzola, Técnica del Servicio de Normativa Tributaria de la Hacienda Foral de Álava. Publicado en *Zergak* nº 53, 1-2017.

«Azterlanak eta Kolaborazioak» atala osatzen duten lau artikuluen ondoren, lehen aipatu den atal berezia sartu da: «EZKO: 30 urteko zerga-harmonizazioa Euskadin» izeneko monografikoa. Bertan, 2019ko uztailaren 19an Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan Donostian antolatutako jardunaldian parte hartu zuten hizlari nagusien lankidetzak bana jasotzen da.

«Erreferentziak» atala bost azpiataletan dago egituratuta aldizkariaren ale honetan:

1) Lehenengoan, «Intereseko dokumentuak» izenekoan, hiru dokumentu-arlo aukeratu dira: horietako batzuk aipatuak ditugu jada editorial honen hasieran, eta aldizkari honetan bertan agertzen diren esteka edo loturen bidez eskura daitezke nagusiki.

i) Lehenengoa, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak garatu duten zerga-arloko hezkuntza-programarekin dago lotuta, Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuan nabarmendutako prebentzio-jardueren esparruan. Bi esteka ditu. Lehenengoak 2018/2019 ikasturteko emaitzen memoriaren laburpen batera bideratzen du. Bigarren estekak, aldiz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunera bideratzen du, eta bertan, proiektuan parte hartzen duten beste erakunde batzuen webguneetan dauden dokumentu interesgarri batzuetara bideratzen gaitu (foru-aldundiek egindako unitate didaktikoak, adibidez).

ii) Bigarrena, TicketBAL sistemaren zehaztapen tekniko eta funtzionalen dokumentua da. Izan ere, esan dugun bezala, foru-aldundien zerga-araudiak jardura ekonomikoetako diru-sarrerak kontrolatzeko sistema berri hau ezartzetik eratorri diren zerga-betebeharren arabera egokitzeko

a fechas de devengo del Impuesto de plusvalía anteriores a su aprobación.

A continuación de los cuatro artículos que integran la sección de “Estudios y Colaboraciones” se incluye la sección especial a la que se ha hecho referencia anteriormente: el monográfico que, bajo el título “OCTE: 30 años de armonización fiscal en Euskadi”, recoge una colaboración de cada uno de los principales ponentes que participaron el 19 de julio de 2019 en la jornada organizada en los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco, en Donostia-San Sebastián.

La sección de “Referencias” se compone en este número de la revista de cinco apartados:

1) En el primero de ellos, “Documentos de interés” se han seleccionado tres áreas documentales, algunas de las cuales ya se han avanzado en las líneas introductorias de este editorial y a las que se accederá preferentemente mediante los enlaces facilitados en la propia revista.

i) La primera de ellas, relacionada con el programa de educación tributaria desarrollado por las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco en el marco de las actuaciones preventivas destacadas en el Plan Conjunto de lucha contra el fraude, incluye dos enlaces. El primero de ellos dirige a un extracto de la Memoria de Resultados correspondiente al curso 2018/2019 y el segundo enlace dirige a la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, desde el cual se facilita la redirección a documentos de interés alojados en la web de otras de las instituciones que participan en el proyecto, como las unidades didácticas elaboradas por las Diputaciones Forales.

ii) La segunda, el documento con las especificaciones técnicas y funcionales del sistema TicketBAL, que como hemos señalado deberán incorporarse próximamente en el conjunto de disposiciones necesarias para la adaptación de la normativa tributaria foral a las obligaciones fiscales derivadas

egin beharko diren xedapenen artean sartu beharko dira laster.

- iii) Hirugarren dokumentu-arloa zerga-iruzurraren kontrako batzordearen jarduerarekin lotuta dago. Batzorde hori Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan eratu zen, 2013ko urriaren 14an, Eusko Legebiltzarrak lehendik hala eskatuta, eta hartan foru-aldundiek eta Eusko Jaurilaritzak hartzen dute parte. Alde bateatik, 2018ko EAEko iruzur fiskalaren urteroko txosten integratuak, urte horretan Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuak izan zituen emaitzak biltzen ditu, eta bigarrenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuak, 2019. urteko irizpide orokorrak eta egin beharreko jarduera bateratuak aurkezten ditu. Dokumentu biek lotuta, *Zergak* aldizkariaren zenbaki honetan dokumentuak osotasunean irakurtzeko bi esteka daude. Hain zuzen ere, dokumentu bi horiei buruzko informazioa emateko, iruzurraren aurkako batzordeko kideek agerrialdia egin zuten, 2019ko irailaren 25ean, Eusko Legebiltzarrean.

2) Bigarren azpiatala, «EZKO kontsultak» izenekoa, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak txostena edo irizpena eman dien kontsultak, tributuen alorrekoak, biltzeko gunea da, maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzkoak, 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz: «*Lurralde historikoetako zerga-administrazioek darabiltzaten irizpideen koordinazioa lortzeko begira, kontsulta lotesleak Zerga Koordinaziorako Organoaren txostenaren ondoren argituko dira (...)*».

Zergak aldizkariaren zenbaki honetan lau kontsulta hautatu dira, askotarikoak. Kontsulta horien erantzuna oso-osorik jaso da, eta honako gai hauek jorratu dira:

de la implantación de este nuevo sistema de control de los ingresos de las actividades económicas.

- iii) La tercera área documental se refiere a la actividad de la Comisión de lucha contra el fraude fiscal participada por representantes de las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco, que fue creada en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi mediante acuerdo del 14 de octubre de 2013, según había instado previamente el Parlamento Vasco. Se trata, por una parte, del Informe Anual Integrado sobre el fraude fiscal en la CAE en 2018, que computa los resultados de las actuaciones del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal realizadas durante ese año y, por otra, del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco, que contiene los criterios generales y las actuaciones coordinadas a realizar durante el año 2019. En relación con los dos documentos, este número de *Zergak* incluye sendos enlaces desde los que se puede acceder a los textos íntegros. Precisamente para informar en relación con estos dos documentos comparecieron el 25 de septiembre de 2019 en el Parlamento Vasco los miembros de la Comisión de Lucha contra el fraude.

2) El segundo apartado, el de "Consultas OCTE", abre un espacio destinado a recoger consultas tributarias que han sido informadas por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, según dispone el artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal: "A los efectos de conseguir la coordinación de los criterios que se sustenten por las Administraciones tributarias de los Territorios Históricos, las consultas vinculantes se evacuarán previo informe del Órgano de Coordinación Tributaria ...".

En este número de *Zergak* se han seleccionado cuatro consultas, de índole diversa, cuya respuesta se reproduce íntegramente, en las que se tratan las siguientes cuestiones:

Kontsultaren gaia	Asunto objeto de la consulta
PFEZa. – Administrazio publiko batek mutualistei amatasunagatik eta aitatasunagatik ordaindutako ordainsarien zerga-tratamendua, bereziki: 1. Funtzionario mutualistei ordaindutako baimen ordainduen salbuespena. 2. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorri atxikitako funtzionarioei ordaindutako soldata-osagarrien salbuespena.	IRPF. – Tratamiento tributario de las retribuciones abonadas por una administración pública a los mutualistas en concepto de maternidad y paternidad, en particular: 1. Exención de los permisos retribuidos abonados al personal funcionario mutualista. 2. Exención de los complementos salariales abonados al personal funcionario adscrito al Régimen General de la Seguridad Social.
SZ. – Sozietate publiko baten eragiketa-bolumena zehaztea, sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako mikroenpresa gisa kalifikatzeko: sozietate publikoak berak merkaturatzaileei bidesari gisa fakturatutako zenbatekoen tratamendua, ondoren Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (MLBN) transferitu behar zaizkionak	IS. – Determinación del volumen de operaciones de una sociedad pública en aras a calificarla como microempresa a efectos del Impuesto sobre Sociedades: tratamiento de las cantidades facturadas por la propia sociedad pública a los comercializadores en concepto de peajes que posteriormente deben ser transferidos a la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia (CNMC).
BEZa. – Subjektu pasiboaren inbertsioaren figura aplikatzea zenbait higiezin-eragiketatan: 1. Urbanizazio-gastuen ordainketari lotutako lursailak edo partzelak erosteko eragiketak, baldin eta eragiketa horietan erabakitzen bada saltzaileak hartzen duela bere gain urbanizazio-gastuen gainerako ordainketa. 2. Eskubide erreal batek berme gisa atxikitako higiezinak eskuratzea, nahiz eta eskualdatzearen helburua ez izan eskualdatzaileak bermea betearaztea, eta nahiz eta higiezina ez transmititu bermatutako zorra guztiz edo partzialki azkentzearen truke edo eskuratzaileak zorra azkentzeko duen betebeharraren truke.	IVA. – Aplicación de la figura de la inversión de sujeto pasivo en determinadas operaciones inmobiliarias: 1. Operaciones de compra de terrenos o parcelas afectas al pago de gastos de urbanización, en las que se acuerde que es el vendedor quien asume el pago restante de los gastos de urbanización. 2. Adquisiciones de inmuebles afectos por un derecho real en garantía aún en los supuestos en los que la finalidad de la transmisión no es la ejecución de la garantía por parte del transmitente ni el inmueble se transmite a cambio de la extinción total o parcial de la deuda garantizada o de la obligación de extinguir la referida deuda por el adquirente.
PFEZa-EEZa. – Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betetzearen ondoriozko zenbatekoen ordainketari aplikatu beharreko zerga-tratamendua, erakunde publikoko langileei karrera profesionalagatik aitortutako zenbait ordainsari dagokienez: zenbatekoen denbora-egozpena, integrazio-ehunekoa, lurralde erkideko hartzaileen eta ezintasun iraunkor absolutu aitortua duten pertsonen kasu espezifikoak, atxikipenak.	IRPF-IRNR. – Tratamiento fiscal aplicable al abono de las cantidades derivadas del cumplimiento de sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en relación con determinadas retribuciones por la carrera profesional reconocidas a las personas trabajadoras del Ente Público: imputación temporal de las cantidades, porcentaje de integración, supuestos específicos de perceptores de territorio común y de personas con incapacidad permanente absoluta reconocida, retenciones.

3) Ekonomia Itunaren III. kapituluko 2. atalean Araugintza Koordinatzeko eta Ebaluatze Batzordeari esleitutako eginkizunen artean dago «Ekonomia Itun honetan aipatutako lotura-puntuen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea». Beraz, kontsulta horiek Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek adostutako erabakien bidez ebatzen dira, Batzordean alde biak ordezkaturik baitaude. Bada, Ekonomia Itunaren 63. artikulua dioenez, Araugintza Koordinatzeko

3) Entre las funciones atribuidas a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa regulada en la Sección 2ª del Capítulo III del Concerto Económico se contempla la de “Resolver las consultas que se planteen sobre la aplicación de los puntos de conexión contenidos en el presente Concerto Económico”. Este tipo de consultas son por tanto resueltas de manera consensuada entre la Administración del Estado y las instituciones competentes del País Vasco, al estar ambas partes representadas en esta Comisión. Tal como

eta Ebaluatzeko Batzordea Estatuko Administra-
zioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldun-
dien ordezkariak osatzen dute; eta kontsulta ho-
riek ebazteko prozedura Itunaren 64.b) artikulua
dago araututa.

2019ko bigarren erdian, izaera horretako hainbat
kontsulta egin dira eta administrazioek konsul-
ton inguruko erantzun- eta ohar-proposamenak
helarazi dituzte. Kontsulten artean, i) kasuren ba-
tean irekita dago izapidetzea, eta akordioa lor-
daiteke oraindik, ii) baina beste kasu batzuetan,
ordea, desadostasuna egiaztatu eta Arbitraje
Batzordeari helarazi diote desadostasun hori era-
ginpeko administrazioek, eta organo horri dago-
kio, orain, gatazka ebaztea, eta iii) 2019ko lehe-
nengo sei hilekoko kasu bakar batean, estatuko
administrazioarekin adostu da zelan erantzun
kontsultari.

Azken kontsulta horri, adostasunaren xede izan
den kontsultari, dagokienez, «Erreferentziak» atal
barruko azpiatal honetan Ekonomia Itunaren lo-
tura-puntuak aplikazioari buruz egindako kont-
sultari emandako ebazpenaren testua dago
jasota, horretan zehazki eragindako agenteen
nortasun-datuak ezabatuta. Gai honi buruzkoa
da kontsulta, hain zuzen ere:

Kontsultaren gaia
PFEZa- Atzerrian egindako lanak. 1. PFEZaren araudi erregulatzailean aurreikusitako salbuespena aplikatzea atzerrian benetan egindako lanengatik jasotako lan-etekinei dagokienez. 2. Konturako atxikipena egiteko betebeharra. Administrazio eskuduna.

4) Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalak Ar-
bitraje Batzordearen (EIAB) osaera, eginkizunak
eta akordioaren erregimena arautzen ditu. Batzor-
de horrek Estatuko Administrazioaren eta foru-
alduen artean sortzen diren zergen arloko ga-
tazkak ebaztea du helburu. Zergak aldizkariaren

se regula en el artículo 63 del Concierto, compo-
nen la Comisión de Coordinación y Evaluación
Normativa representantes de la Administración
del Estado, del Gobierno Vasco y de las tres Di-
putaciones Forales y el procedimiento para la re-
solución de estas consultas viene regulado en el
artículo 64, letra b) del Concierto.

Durante la segunda mitad de 2019 se han formu-
lado varias consultas de esta naturaleza y las ad-
ministraciones se han trasladado propuestas de
respuesta y observaciones respecto a dichas con-
sultas. De entre estas consultas, i) en algún caso se
encuentra abierta su tramitación y aún es factible
el acuerdo, ii) en otros, constatado el desacuerdo,
se ha dado traslado del mismo a la Junta Arbitral,
por parte de alguna de las administraciones con-
cernidas y deberá ser ahora este órgano el encar-
gado de resolver el conflicto y iii) en solamente en
un caso del primer semestre de 2019 se ha acor-
dado con la Administración del Estado el texto de
contestación a la consulta planteada.

En relación con esta última, la consulta que ha
sido objeto de acuerdo, en este apartado de la
sección de "Referencias" se incluye el texto de
la resolución de la consulta planteada sobre la
aplicación de puntos de conexión contenidos
en el Concierto, una vez eliminados los caracte-
res identificativos de los agentes concretamente
afectados en ella. En concreto, la consulta versa
sobre la siguiente cuestión:

Asunto objeto de la consulta
IRPF – Trabajos realizados en el extranjero. 1. Aplicación de la exención prevista en la normativa reguladora del IRPF en relación con los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero. 2. Obligación de practicar retención a cuenta. Administración competente.

4) El Capítulo III del Concierto Económico en su
sección 3ª regula la composición, funciones y
el régimen de los acuerdos de la Junta Arbitral
(JACE), órgano que tiene atribuida la misión de
resolver los conflictos de naturaleza tributaria
planteados entre la Administración del Estado

zenbaki honetan ez da sartu «Erreferentziak» ataleko ohiko apartatu bat, alegia: «Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpenak». Kontuan izan behar da arbitraje-organoa eraginkortasunik gabe geratu dela gatazkak ebazteko, aldi baterako, 2018ko urriaren 17ko bileraz geroztik, bertako arbitro bat, Isaac Merino jauna, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salako magistratu izendatu dutelako eta, horrenbestez, baja hartu duelako ElABeko kidearen eginkizunean. Horrez gain, 2019ko irailean, Arbitraje Batzordeko presidente Gabriel Casadok bi administrazioei jakinarazi zien bere eginkizunetan ordeztu zezatela nahi zuela. Aldizkariaren aurreko zenbakietan adierazi bezala, orain Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari (ElBM) dagokio bi lanpostu hutsak betetzeko pertsona berriak izendatzea eta ElAB berraktibatzea. Espero dugu aldizkariaren hurrengo zenbakia argitaratzen den egunean Arbitraje Batzordearen osaketa berriaren berri eman ahal izatea, eta ordurako erabat aktibo egotea, bere eginkizunak betez.

5) Azkenik, «Estatistikak» atalak, Igor Guinea Palacios Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Diru-sarrerak Kudeatzeko eta Bilketa Aztertzeako Zerbitzuko teknikariak egin baitu, gai hauek jaso ditu *Zergak* aldizkariaren zenbaki honetan: i) foru-aldundiek zerga itunduen bidez egindako bilketari buruzko informazioa, 2019ko urtarrila-urria epeari dagokiona (12.744,6 milioi euroko erregistratutako bilketa, 2018ko denboratarte berean kontabilizatutakoa baino % 2,4 handiagoa) eta ii) 2019ko itxieraren bilketaren aurreikuspenari buruzko informazioa eta 2020rako zerga itunduen bidez bilduko denaren kalkulua, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2019ko urriaren 11n onartutakoaren arabera. 2019ko itxieraren aurreikuspenari dagokionez, kalkulatu da foru-aldundien bilketa bateratua, itxieran, ehuneko 2,7 puntu gehiago izango litzatekeela aurreko ekitaldikoa baino, hau da, 15.386 milioi euroko bilketa, balio absolututan. Halaber, 2020ko zerga-sarrerekin lotuta, foru-aldundiek zerga itunduengatik guztira 15.767,8 milioi euro bilduko di-

y las Diputaciones Forales. En este número de *Zergak*, no se incluye el habitual apartado de la sección "Referencias" destinado a informar sobre las "Resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico". El motivo es que el órgano arbitral, desde finales de 2018, ha quedado transitoriamente inoperativo para la adopción de acuerdos de resolución de conflictos, como consecuencia de la designación de Isaac Merino, uno de sus árbitros, como magistrado de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo, y la consecuente baja en su función de vocal de la JACE. Adicionalmente, en septiembre de 2019 el presidente de la Junta Arbitral, Gabriel Casado, comunicó a ambas administraciones su deseo de ser relevado en sus funciones. Como apuntábamos en números anterior de la revista, corresponde ahora a la Comisión Mixta del Concierto Económico (CMCE) acordar el nombramiento de nuevas personas para cubrir las dos vacantes y reactivar la JACE. Esperemos que en la fecha de publicación del próximo número de revista podamos ya hacernos eco de la nueva composición de la Junta Arbitral y que ésta se encuentre para entonces plenamente activa, ejerciendo sus funciones.

5) Por último, el apartado "Estadísticas" elaborado por Igor Guinea Palacios, técnico del Servicio de Gestión de Ingresos y Análisis Recaudatorio en el Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, incluye en este número de *Zergak*: i) información sobre la recaudación por tributos concertados de las Diputaciones Forales correspondiente al periodo enero-octubre de 2019 (12.744,6 millones de euros de recaudación registrada que suponen un incremento del 2,4% sobre la recaudación contabilizada en el mismo periodo de 2018) y ii) información sobre la previsión de recaudación de cierre de 2019 y la estimación de recaudación por tributos concertados para 2020, aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 11 de octubre de 2019. Respecto a la previsión de cierre de 2019, se estimó que la recaudación consolidada de las Diputaciones Forales cerraría 2,7 puntos porcentuales por encima de la del ejercicio pasado, es decir, con una recaudación en valores absolutos de 15.386 millones de euros. Por otra parte, en

tuztela kalkulatu da. Zifra horrek esan nahi du urte arteko igoera % 2,5 izango dela, 2019ko itxieraren aurreikuspenarekin alderatuta.

Aldizkariaren bukaerako «Zerga Arauak» atalean, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerga Administrazioako Zuzendaritzak egindako hileko buletinetan sartzeko helbidea daukaze. Hilabetekari horietan batzen da foru-aldundiek argitaratutako zerga-araudiaren laburpena (ALHAO, BAO eta GAO), bai eta Eusko Jaurlaritzak (EHAA), Nafarroako Foru Erkidegoak (NAO) eta Estatuak (BOE) argitaratutakoen laburpena ere.

Foru-tributuen gaiari buruzko informazio baliagarria osatzeko interesa duten pertsonak gonbidatzen ditugu EAEko hiru lurralde historikoen webguneetan xede horretarako jarritako ataletan (www.araba.eus, www.bizkaia.eus, www.gipuzkoa.eus) eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean sartzera (www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzako-ogasun-finantza-saila/hasiera/). Horien bidez sar daiteke hiru lurralde historikoen zerga-araudiaren bertsio integratua eskaintzen duen «Foru Zerga Kodea» aplikazioan. Ekonomia Ituna bultzatzeko eta haren zabalkundean jarduteko Ad Concordiam elkarteak sustatutako webgunean sartzea aholkatzen dugu, <http://www.conciertoeconomico.org/eu/>, bai eta Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Dokumentazio Agiritegiak argitaratutako Ituna buletin elektronikoan ere, honako helbide honetan: <https://www.ituna.eus/> eta Pedro Luis Uriartek sustatutako Ekonomia Itunaren inguruko dibulgaziozko webgunea: Egi-leak berak egindako *El Concierto Económico. Una visión personal* izeneko lana hartzen duena (www.elconciertoeconomico.com). Obra bereziki gomendagarria da Ituna ezagutu nahi dutenentzat. Eta oso baliagarria izango da obra ezagutzen duten baina haren alderdi jakin batzuetan sakondu nahi dutenentzat ere. Ikuspegi didaktikoa eta irakurteraza du ezaugarri Itunari lehendabizikoz heltzen diotenentzat, eta barnean hartzen duen material zabalak irakurleari

relación con los ingresos tributarios en 2020 se ha estimado que las Diputaciones Forales recaudarán por tributos concertados un total de 15.767,8 millones de euros. Esta cifra supone un incremento interanual del 2,5% respecto de la previsión de cierre de 2019.

En la sección de cierre de la revista, "Normativa Tributaria" se indica la dirección de acceso a los boletines mensuales elaborados por la Dirección de Administración Tributaria del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, en los que se recoge un compendio de la normativa tributaria publicada por las Diputaciones Forales (BOTH, BOB y BOG), el Gobierno Vasco (BOPV), la Comunidad Foral de Navarra (BON) y el Estado (BOE).

Invitamos a las personas interesadas en completar la información útil sobre materia tributaria foral, a que accedan a los espacios destinados a este fin en las propias páginas web de cada uno de los tres territorios históricos de la CAPV (www.araba.eus, www.bizkaia.eus, www.gipuzkoa.eus) y en la página web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco (www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-hacienda-economia/), desde la que se puede acceder a la aplicación "Código Fiscal Foral" que ofrece una versión integrada de la normativa tributaria de los tres territorios históricos. Asimismo, para el conocimiento y la profundización en los temas relacionados con el Concierto Económico, aconsejamos el acceso a la web promovida por la asociación Ad Concordiam para la Promoción y Difusión del Concierto Económico, www.conciertoeconomico.org, al Boletín Electrónico Ituna editado por el Centro de Documentación del Concierto Económico y las Haciendas Forales accesible en la dirección <https://www.ituna.eus/> y a la página web promovida por Pedro Luis Uriarte, divulgativa del Concierto, que incorpora su obra "El Concierto Económico. Una visión personal" www.elconciertoeconomico.com. Se trata de una obra especialmente recomendable para quienes quieran introducirse en el conocimiento del Concierto, pero también será útil para quienes ya lo conocen y quieren profundizar en aspectos concretos del mismo. Se carac-

erakunde honen gaineko edozein zalantza argitzen lagunduko dio.

Azkenik, gogoratu behar dugu Ekonomia Ituna eta Euskadiko Kupoaren zehazteko metodologia hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) zabaldu dela Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunearen estekaren bidez, [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/octe/eu_def/adjuntos/EI%20\(testu%20bateratua\).pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/octe/eu_def/adjuntos/EI%20(testu%20bateratua).pdf). Itunari buruzko terminoen glosario batez osatua, ingelesezko azalpen didaktiko batekin, eta terminoen euskarazko eta gaztelaniazko baliokide terminologikoekin. Hiru hizkuntzako bertsioa EZKOren ekimenez landu da, erakunde-lankidetzaren esteko testuinguruan garatu da, eta, hizkuntzaren alorreko adituez gain, tributu-zuzenbide foraleko adituek ere hartu dute parte. Nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak lan zehatz eta arduratsua egin duela, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko doktore eta Finantza eta Tributu Zuzenbideko irakasle titular Alberto Atxabal Radaekin lankidetzan —tributu-alorreko aditu eza-guna eta Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeko kidea, batzorde hori sortu zenez geroztik—, eta emaitza izan da bi testuen —Itunaren eta Kupoaren— euskarazko bertsio harmonizatu, kohesionatu eta eguneratu bat, aintzat hartu dituen bai 2017ko lege-erreformak, bai euskararen alorreko azken aurrerapen terminologikoak.

Bestalde, testuen ingelesezko bertsioak —funtsezkoa testuak nazioartean zabaltzeko— egile du Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga Politikako Zerbitzuko buru Gemma Martínez Bárbara, gai horretan esperientzia luzea eta aitortua duen pertsona; izan ere, aditua da bi alor horietan, ingelesezko hizkuntzalaritzan eta tributu-zuzenbide foralean. Ekonomia Itunaren eta Kupoaren zehazteko metodologiaren testuen ingelesezko bertsioa eguneratzeaz gain, Ekonomia Itunari buruzko terminoen glosarioa ere sortu du, zeinak, beste

teriza por su enfoque didáctico y de fácil acceso para quienes descubren el Concierto por primera vez, pero también por el extenso y completo material que incorpora y que seguro podrá satisfacer cualquier inquietud del lector sobre esta Institución.

Por último, recordamos la puesta en difusión – a través del siguiente enlace en la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/octe/es_def/adjuntos/CE%20\(texto%20consolidado\).pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/octe/es_def/adjuntos/CE%20(texto%20consolidado).pdf)– de la versión trilingüe, en euskera, castellano e inglés, del Concierto Económico y la Metodología de señalamiento del Cupo, complementada por el Glosario de términos sobre el Concierto que incluye una explicación didáctica en inglés así como sus equivalencias terminológicas en euskera y en castellano. Para la elaboración de esta versión trilingüe, desarrollada a iniciativa del OCTE en el marco de una estrecha colaboración institucional, se ha contado con la participación de expertos tanto en el campo de la lingüística, como del ámbito del derecho tributario foral. Es destacable la labor rigurosa y concienzuda del Servicio Oficial de Traductores del Gobierno Vasco, en colaboración con el Doctor en Derecho y Profesor Titular de Derecho Financiero y Tributario de la Universidad de Deusto, Alberto Atxabal Rada, experto reconocido en materia tributaria y miembro de la Comisión de Terminología del Consejo Asesor del Euskera desde su creación, para elaborar una versión en euskera de ambos textos, Concierto y Cupo, armonizada, cohesionada y actualizada, tanto a las reformas legales de 2017 como a los últimos avances terminológicos de la lengua vasca.

Por su parte, la autoría de la versión de los textos en inglés, fundamental para su divulgación exterior, corresponde a Gemma Martínez Bárbara, Jefa del Servicio de Política Fiscal de la Hacienda Foral de Bizkaia y persona de amplia y reconocida experiencia en la materia, en la que concurre su competencia en las dos vertientes, la de lingüística en inglés y la de derecho tributario foral. Además de encargarse de la actualización de la versión en inglés de los textos del Concierto y de la Metodología de señalamiento del Cupo,

elementu batzuen artean, termino horien ingelesezko azalpen didaktikoa eta euskarazko eta gaztelaniazko baliokideak hartuko baititu. Glosarioa hiru hizkuntzako testuekin batera dago, irakurtzeko eta ulertzeko lagungarri.

ella es la autora del glosario de términos sobre el Concierto Económico que entre otros elementos incluye una explicación didáctica de dichos términos en inglés así como sus equivalencias terminológicas en euskera y en castellano. El glosario acompaña a los textos en trilingüe como herramienta útil de apoyo a su lectura y comprensión.

